

ELKARTRUKE ESPERIENTZIA

Evergreen unibertsitate aurrerakoitik Euskal Herrira

Olympyan, AEBetako Washington Estatuan, The Evergreen State Collegue unibertsitateko Basque Country study abroad programaren arduraduna da Amaia Martiartu arrasatearra. Programa horren bitartez, 18 eta 22 urte arteko bederatzi gazte Euskal Herrian izan dira hiru astez, bertako politika, kultura eta ohiturak ezagutzeko asmoz.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Stephano Garfield



Ikasle amerikarrak Goi Eskola Politeknikoan. Eskuman, Amaia Martiartu arduraduna, Geoff Bates programako irakasleetako bat eta Mondragon Taldeko Nazioarteko bisiten arduradun Mikel Lezamiz.

BEDERATZI gazte horien artean bada euskal jatorria duenik, baina gehienek jakin-min hutsez eman zuten izena, eta guztiak ezagutu eta aurkitutakoaz txundituta bueltatu dira Washingtonera. Euskal Herrira gehiago ikastera itzultzeko asmoa azaldu du batek baino gehiagok. Udan izan dira gurean eta ez dute ia atsedunik hartu. Etorri aurretik, Mark Kur-lanskyren *Basque history of the world* irakurri zuten eta AEBetara bueltatu aurretik, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*. Izan ere, bi liburu horietan oinarritu dituzte programaren nondik norakoak. Astean bitan Arrasateko AEKn

euskara eskolak hartu dituzte (guztira 12 ordu) eta Mondragon Taldeko hainbat kooperatiba eta bi fakultate bisitatu dituzte. Egoera politikoaz ere mintzatu dira, Euskal Herria ondo ezagutzeaz gain AEBetan ezker sindikalgintzan diharduen Geoff Bates-ekin, Igor Letona preso politikoa ohiarekin eta Amaieur alderdiko senatari Urko Aiartzarekin. Gernikako Bakearen Museoa izan dira, bestalde.

Nekazaritza ekologikoa eta baserrien ondarea ere landu dituzte. Hala, Debagoienako hainbat baserri eta azoka bisitatzeaz gain, Arrasateko Bioso baserrian gazta nola egiten

Laura Humprey eta Stephano Garfield, ikasle estatubatuarrak

«Alor guztietan daukauen komunitate zentzua harrigarria da»

Basque Country study abroad programan parte hartu duten ikasleetako bi elkarrizketatu ditugu eta herrialde batek eta besteak eskaintzeko duenaz aritu gara.

Zer da Euskal Herritik gehien harritu zaituztena?

Laura Humprey: Harremanetan oinarritutako baloreak dituzuela: negozioetan, familian... Eta sozialki duzuen bizitza handia. Gehiena izan da ona, bi gauza ezik: jendea zaborra lurrera botatzen ikusteak min handia egin dit, eta sumatu dut atzerritarrekiko aurreiritziak dituela jendeak. Beharbada hemen AEBetan baino kultura dibertsitate txikiagoa dagoelako.

Stephano Garfield: Hemengo komunitate zentzuak zur eta lur utzi nau. Amaia [Martiatu] behin baino gehiagotan saiatu zen hori azaltzen, eta hona etorri arte ez dut ulertu. Jendeak Olympyan beste modu batean egiten du bizitza publikoa.

Ez da oso ohikoa hain egonaldi motza egitera etorri eta euskara ikasten ahalegintzea.

S.G.: Hizkuntza zaila da, baina ez nik uste nuen beste. Eta, zinez, ikasten jarraitzeko asmoa dut.

L.H.: Nik ere sorpresa hartu dut, zailagoa izango zela uste nuelako. Areago, esango nuke ingelesa dakigunok erraztasun handiagoa dugula euskara ikasteko, soinuak gurearen antzekoak direlako; gaztelaniarekin aldez, alderantziz gertatu zitzaidan.

Zer iritzi daukatzue Mondragoneko kooperatibei buruz? Egingarria ikusten duzue halakorik AEBetan?

S.G.: AEBetan ere badira kooperatibak, baina ez hemengoen tamainakoak, ezta hain esparru zabaletan ere. Sinesgaitza da nazioarteko merkatuan lehiatzen diren enpresek pertsonen harremanak zaintzea eta gaizki dabilen



“Esango nuke ingelesa dakigunok erraztasun handiagoa dugula euskara ikasteko, soinuak antzekoak direlako”, adierazi digu Humpreyk (ezkerrean).

enpresetako bati guztiek laguntzea.

L.H.: Ni gehien harritu nauena da taldearen barruan langileak enpresa batetik bestera mugitzeko aukera izatea; eta bestea, soldaten ratioarena: kooperatibetan 1 eta 8 artekoa da, eta AEBetan 1 eta 300 artekoa izan daiteke. Evergreenen inguruan halakorik sor liteke, baina hortik kanpo zaila ikusten dut. Behar handiko egoera bat izan behar du jendea elkartu eta halako apustua egiteko, Clevelanden bezala.

Zer ikasi duzue gugandik?

S.G.: Gauza asko! Guk bizi izandakoarekin alderatuta hain da ezberdina guztia: kooperatiben zentzua eta indarra, harremanen aldeko baloreak, hizkuntza baten aldeko lana... Adibidez, Emun enpresaren esperientziak eta elkarte gastronomikoen txundituta utzi naute.

L.H.: Stephanorekin bat egiten dut. Gauza bereziena hemen dituzuen baloreak dira. Eta oro har alderdi sozialak harrirtuta utzi nau:

jendearekin aurrez aurre egotea, telefono edo internet bidez izan beharrean, oso arraroa da niretzat, baina oso gustuko dut. Ez dut etxera bueltatu nahi, han isolatuta bizi naizelako. AEBetan jendearekin denbora pasatzen dut, baina ez da kalitatezko denbora. Denbora hori hemen kalitate handikoa da.

Euskal Herrira itzultzeko asmorik baduzue?

S.G.: Bai, linguistikan interes handia daukat eta euskarari buruzko ikasketak sakondu nahi ditut. Izan ere, euskararena oso hizkuntza-egoera interesgarria da, kultura eta hizkuntza indartsuak dira eta oso lotuta daude. Datorren ikasturtean kontratu baten bidez bertsolaritzari buruzko ikerketa egiteko asmoa daukat Euskal Herrian.

L.H.: Hiru aste oso denbora gutxi da, baina niri balio izan dit Euskal Herriaz gehiago ikasi nahi dudala jakiteko. Jakina errepikatzea gustatuko litzaidakeela.

den ikasi dute. Ondare artistikora gerturatzeko helburuz, besteak beste Arantzazuko santutegian, Olleriasako Euskal Zeramikaren Museoan eta Eskoriatzan kokatua dagoen Ibarraundi museo etnografikoan izan dira, baserrietako lanabesak eta musika tresna zaharrak ezagutzen. Zugarramurdin ere egon dira, Inkisizioaz solastatzen.

Bestetik, Bilboko Guggenheim museora joan eta hiriak izan duen eraldaketa bere horretan ikusi ahal izan dute eta Urbia eta antzeko ingurune naturaletara urreratu dira. Asier Altuna zuzendaria gidari, *Bertsolari* filmaz gozatzeko eta bertsolaritzaren inguruan mintzatzeko parada izan dute. Eta nola ez, herrietako jaietan murgiltzeko aukera paregabea izan dute ikasle estatubatuarrek.

Hemen ikasitakoa AEBetan zabaldu

Amaia Martiartu oso pozik dago programak izan duen harrerarekin eta baikor azaldu da hurrengo urteetan izan dezakeen bilakaerarekin: “Behin baino gehiagotan, Evergreen unibertsitatean Euskal Herriko kooperatiben esperientziak, hemengo ohitura, egoera politiko eta hizkuntzaz jardun dut, eta banuen gogoak ikasleei hori erakusteko. Gainera, oso gustura nago ekarri dudana taldeaz. Hemengoak ezagutu eta ikasteko oso irekita egon dira eta ez, batzuetan euskaldunok kanpoan aritzen garen moduan, norbere zibilizaziora begira”. Irakasle arrasatearrak balio handia ematen dio atzerriko jendea ekarri eta ahalik eta modu osatuenean gure herria erakusteari: “Hemen ikasitakoa bueltan AEBetan modu aktiboan zabaltzen badute, hedabide handiek sortutako aurreiritziak apurtzen joan gaitezke”.

Guk ere badugu haiengandik zer ikasia

Evergreen State Collegue, dena den, ez da ohiko unibertsitate bat. 70eko hamarkadan AEBetako hainbat irakasle irakaskuntza eredu orokorretik at egongo zen unibertsitatea sortzeko ahalegina egin eta indarrak batu-

ta Olympyan dagoen hau sortu zuten. Ordu tik dago zutik eta ikasleen neurriera egindako eskaintza du oinarri. Arte Liberalak deritzon multzoa da eskaintza nagusia eta ikasleek hautatzen dute ikasi nahi dutena, ez baitago ikasgai zehatzik, diziplina askotariko programak baizik. “Adibidez, 16 kredituko programa batean Indiako filosofia, Pazifikoko itsas biologia eta Frantses literatura uztartzen dira. Hortaz, irakasleek beraiek sortzen dituzte programak, beste inoren menpe egon gabe. Are gehiago, unibertsitateko arduradunek ikasleak behartzen dituzte lehen urtean ahalik eta gai anitzena har ditzaten, ikasketak euren gustura kustomizatu ditzaten”, azaldu digu Martiartuk.

Evergreenen ez da azterketarik egiten eta ikasleren batek ikasgai oso zehatz batean interesa badu eta oniritzia emango dion tutore bat lortzen badu, aukera dauka gai hori bere kabuz landuta hainbat kreditu lortzeko. Inguruko presondegietan ere laguntzen dute ikasleek, baita errefuxiatuekin ere. Bitxikeria gisa, bertan ikasiak dira, adibidez, Los Simpson marrazki bizidun arrakastatsuen egile Matt Groening eta Macklemore hip-hop abeslari eta musikari ezaguna.

Halako ikastetxe ireki eta anitzak aurkako erreakzioak jaso ditu Washington inguruko alderdi tradizionalenen aldetik. “Lesbianen, punkyen eta hippyen unibertsitatea dela dio zenbaitek, baina AEBetako leku askotatik espresuki etortzen da jendea bertara ikastera, parekorik ez duelako. Askatasuna daukagu nahi ditugun alorrak aukeratzeko, eta hori modu aproposan egiten baduzu, zure heziketa ezin hobea izango da”, kontatu digu Euskal Herria ezagutzeko programan parte hartu duen eta Evergreeneko ikasle den Laura Humpreyk. Martiarturen aburuz, oso interesgarria litzateke Evergreenen hezkuntza sistema zertan datzan Euskal Herrian ezagutzera ematea. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea